

## ERANTZUKIZUNAREN BANDOA

Aurten Olazti/Olazagutia ez ditu jaiak ospatuko. COVID-19 pandemiaren ondorioak direla eta, uztailaren 23tik 26ra bitartean ezin izanen da ekitaldi publikorik deitu. Erabaki zaila izan da, historikoa, mingarria, baina aukeran dagoen bakarra. Horrela ulertu dute udal talde politikoez, kultur taldeek eta herritarrek, aho batez babestu baitute erabakia. Guztiek eskerrak eman nahi diegu erakutsi duten ulermenagatik eta babesagatik.

Festen ospakizuna bateraezina da pandemiarekin. Aurten ez da festarik izanen eta herriak "normaltasun berria" oinarrituta jardun behar du, baita egun horietan ere.

Ez dago festarik, lehenetsuna osasun publikoa delako. Horregatik, **ezinbestekoa da adituena aholkuak eta horri buruz emandako Foru Aginduak betetzea.**

- Sahiestu aglomerazioak dituzten eremuak.
- Segurtasun distantzia gorde (1,5 metro)
- Musukoa derrigorrez erabili behar da, bide publikoan eta aire zabaleko eremuetan, baita erabil publikoko eremu itxietan ere, baldin eta beste persona batzuekin egon baldin badaiteke. - Lavarnos frecuentemente las manos.
- Saltoki bakoitzean adierazitako edukiera errespetatzea.

Gainera, egun horietan **espresuki debekatuta egonen da mahaiak eta aulkiak kalera ateratzea** hamaiketakoak, bazkariak etabar egiteko, segurtasun-neurriak betetzea oztopatzen duten ospakizunak sahiesteko eta kutsatzeko arriskua murrizteko.

Arrazoi beragatik, ezin izanen da kalean jarduera tradizional, erlijioso, kultural edo ludikorik antolatu arriskuari buruz egin daiteke balorazioa alde batera utzita.

Azkenik, uztailak 17ko 35/2020 Foru Aginduak ezartzen duen arabera aisialdiko bajeak eta antzekoak itxita eta inongo jarduerarik gabe mantendu beharko direla.

Erantzukizunaren bandoa da hau, zuhurtzia eta sen ona nagusi izan daitezen eskatzeko bandoa. Eskakizun bat da, halaber, arduratsuak izan gaitzen eta gure Osasuna arriskuan jar ez dezagun, ezta gure bizitza eta ingurukoena ere, batez ere adineko pertsonena ere, horiek baitira ahulenak COVID-19ren aurrean.

GORA OLAZTI!!! GORA SANTA ANA!!!

Olazti / Olazagutian, 2020ko uztailaren 21ean / 21 de julio de 2020.



